



**Ikastolen emendakin, ohar, galderak –
Batzorde eragilearen erantzunak**
*Amendements, remarques, questions des ikastola –
Réponses du Conseil Exécutif*

2022-23 AURREKONTUA – BUDGET PREVISIONNEL 2022-23

SENPERE :

1.3 : kondulariak / les comptables :

Interesgarria liteke zehaztea zein diren ikastolaren zereginak eta zein diren kondularien zereginak, hau da laguntzaileen kontratuen kudeaketan eta konduen segipenetan bakoitzaren errola zein den.

Il serait intéressant de noter les tâches qui incombent à l'ikastola et les tâches qui incombent aux comptables, quel est le rôle de chacun dans la gestion des contrats des salarié.e.s et le suivi des comptes.

Bulegoaren erantzuna/Réponse du Conseil exécutif

Ikastolendako kondularitza Seaskan denboraren poderioz eraiki den zerbitzu bat da. Praktikak finkatu du bere kuadroa, ikastolen kopurua handituz joan den heinean. Digitalizazioarekin eta prozedura aldaketekin, araudi aldaketekin, ikastoletan diruzain batetik bestera transmisioa egiteko zailtasunekin, azken urteetan anitz aldatu da, eta diozuen gisan diruzainen eta kondularien misioak berriz zehaztu beharko ditugu. 2022/23 ikasturte berrian nahiantekin lantalde bat osatzea proposatzen dugu gai horiei buruz gogoetatzeko.

Le service comptabilité s'est construit au fil du temps par Seaska. La pratique a établi son cadre à mesure que le nombre d'ikastola a augmenté. Avec la digitalisation et les changements de procédures, les changements de réglementations, les difficultés de transmission d'un trésorier à l'autre dans les ikastola, tout cela a beaucoup changé ces dernières années, et comme vous le dites il va falloir redéfinir les missions des trésoriers et des comptables. A la rentrée 2022/23, nous proposons de constituer un groupe de travail avec les personnes qui seront volontaires pour réfléchir à ces enjeux.

AMIKUZE - BAIGORRI - GARAZI/AZKARATE - ORTZAIZE - OZTIBARRE :

Arlo soziala eta kondulari koordinatzaile baten postu sortzearen proiektua:

Badu 2 urte gogoeta barnekaldean eramana dela 8 ikastola (Aloze, Sohuta, Ortzaize, Baigorri, Azkarate, Donibane Garazi, Oztibarre eta Amikuze), MEEkolegioa eta Seaskaren artean. Bilkuretan, sozial arloan eta kontabilitatean laguntzaren beharra ateratzen da. Seaska mailan lan horri dedikatuak diren postuen ahulezia agertu zen. Horregatik, MEE kolegioan kokatuko litzatekeen kontulari/sozial lanpostu dezentralizatu sortzearen ideia aitzinatua izan zen.

Gure proiektua sektoreko koordinatzaile-lanpostu sortzea da, Ikastoletako kondularitza eta arlo sozialean laguntzeko, Seaskari lotua egonen dena, baina kolegioan egonen dena astearen parte handi batez, Ikastolekiko hurbiltasun geografikoa sortzeko.

Seaskako dokumentuetan eta aurrekonduan postu hori **esperimentazio gisa** agertaraztea galdeginen dauzuegu.

Cela fait 2 ans qu'une réflexion est menée à l'intérieur avec 8 ikastola (Aloze, Sohuta, Ortzaize, Baigorri, Azkarate, Donibane Garazi, Oztibarre et Amikuze), le collège Manex Erdozaintzi Etxart et Seaska. Lors des réunions, le besoin d'accompagnement pour le volet social et la comptabilité a été soulevé. La faiblesse des postes dédiés à ce travail au niveau de Seaska a été soulignée. Dès lors, l'idée de créer un poste de comptabilité/social décentralisé qui serait implanté au sein du collège M.E.E. a été avancée.

Notre projet est de créer un poste de coordinateur de secteur, d'aider dans le domaine de la comptabilité et le domaine social des Ikastola, qui sera lié à Seaska, mais sera au collège une grande partie de la semaine, pour créer une proximité géographique avec les Ikastola.

Nous vous demanderons de positionner ce poste dans les documents et le budget prévisionnel de Seaska à titre expérimental.

Gorago aipatu aldaketez gain, kondularitzan langile aldaketak heldu zaizkigu, Maialen eta Mado aitzin erretretan izanen baitira denbora erdiz irailetik goiti, eta luze gabe erretreta hartuko dute. Lehenik talde berria martxan ezarri behar da, beharrez ikastolen segimendua sektore geografikoka banatu kondularien artean eta gorago Senperek proposatzen duen gisan batzuen eta besteen misioak berriz zehaztu behar ditugu.

En plus des changements mentionnés ci-dessus, le temps des changements est venu au service comptabilité, car Maialen et Mado seront en retraite progressive à mi-temps à partir de septembre et prendront bientôt leur retraite. Tout d'abord, il faut installer le nouveau groupe, se répartir si besoin le suivi des ikastola par secteurs géographiques entre les comptables et, comme le suggère l'ikastola de Senpere, redéfinir les missions des uns et des autres.

ETXEPARE :

Ustiapen karguak / Charges d'exploitation

Irakasle ordezkioentzat egiten den bezala, AESHeri ere bide gastuak ordaintzea proposatzen dugu.

Comme pour les salarié.es enseignant.e.s nous proposons une prise en charge des frais de déplacement pour les AESH.

Gai hori Integrazio Batzordeari dagokio. Hala ere jakin behar da AESH gehienak Hezkuntza Ministeritzako langile direla eta ez IBkoak. Beraz, IBko kontratuean ez diren langileei bide gastuak (etxetik lanerakoak) ordaintzea legez biziki konplikatu da. Azkenik, Integrazio Batzordearen ahalak, beste egitura guzienak bezala, mugatuak dira.

Ce sujet concerne Integrazio Batzordea. Cependant, il convient de noter que la plupart des AESH sont des salarié.e.s du ministère de l'Éducation Nationale et non de IB. Par conséquent, payer les frais de déplacement (domicile – travail) aux salarié.e.s qui ne sont pas sous contrat

avec IB est très compliqué juridiquement. Enfin, les moyens d'Integrazio Batzordea comme ceux des autres associations sont limités.

Zuzenketa galdea / demande de correction :

Organigramaan, IB lerroan, postua ekainaren 30ean uzten duelako, Fabienne Parachou ordeztu, "Aholkulari 0.75" idatzi otoi.

Sur l'organigramme, Remplacer "Fabienne Parachou" par "Conseillère 0.75"

Ados.

LEKORNE :

Aurrekontuaren zehaztapenetan langilegoaren kudeaketa, aldaketak, egoera batzuk agertzen dira. Zati hauek norabideetan agertzea eskatzen dugu, gaiak garrantzitsuak iruditzen zaizkigulako.

La notice explicative du budget relate la gestion du personnel, les changements, certaines situations. Nous demandons que ces éléments apparaissent dans les orientations, car les thèmes nous semblent importants.

Aurrekontuaren zehaztapen notak aurrekontuaren inguruko erabakiak zehazten ditu. Besteak beste, lanpostuetan diren aldaketak. Aldiz ikasturteko misio berriak, langileenak, ikastolenak eta orohar Seaskarenak norabideetan agertzen dira. Norabideetan agertu edo aurrekontuetan, emendakinak edo oharrak berdin egin daitezke.

La notice explicative du budget précise les décisions budgétaires. Il s'agit notamment des changements d'emploi. Par contre, les nouvelles missions pour la prochaine rentrée, celles du personnel, des ikastola et de Seaska en général apparaissent sur le rapport d'orientation. Des amendements ou remarques peuvent être apportés pour le budget comme pour le rapport d'orientation.

Kotizazioak : laz galdera hau egin genuen : « Kotizazio gogoetari buruz: nola helarazten ahalko dira gure ikastoletako gogoetak? Nor arduratuko da gogoeta honetaz? » Aurten gogoeta egina izan dela diote testuek, nork eraman du gogoeta ? Lehendakariei aurkeztua izanen zaie, ausnarketak segituko du ala hala deliberatua izanen da ? Ikastolen kontseiluan aurkeztua izanen da lanketa ?

Les cotisations : L'année dernière, nous avons posé la question : « À propos des réflexions concernant les cotisations : comment peut-on communiquer les résultats de notre réflexion ? Qui sera responsable de cette réflexion ? » Les textes disent que la réflexion a été menée cette année. Qui a mené la réflexion ? A-t-elle été présentée à l'assemblée des président.e.s ? la réflexion sera-t-elle poursuivie ou des délibérations ont-elles été prises ? L'étude sera présentée au Conseil des ikastola ?

2021/2022 ikasturtean Seaskako Batzorde Eragileak gogoeta bat abiatu du. Sartzean ikastoletako Lehendakariekin partekatuko da eta hor elgarrekin erabakiko da zein segida eman.

Le Conseil Exécutif de Seaska a mené une réflexion au cours de l'année 2021-22. À la rentrée, elle sera partagée avec les président.e.s, et ensemble il sera décidé quelle suite donner à cette réflexion.

Erakasle ordezkoen bide gastuak :

Erakasle ordezkoen klasifikazioa hobetu dela idatzia da. Soldatak zenbatez emendatuko dira ? Bide gastuen ordainketa kentzea justifikatzen ote du ?

Frais de déplacements des enseignant.es. suppléant.e.s : Il est écrit que la classification des enseignant.e.s suppléant.e.s s'est améliorée. Quelle est la hausse des salaires ? Cela justifie-t-il la suppression du paiement des frais de déplacement ?

Orain arte Lehen Maila eta Bigarren mailako irakasle ordezkoak ez ziren berdin pagatuak. Lehen Mailakoak MA2 gisa pagatuak ziren (1 504.21€ gordin hilabetea), eta Bigarren Mailakoak MA1 gisa (1 635.42 gordin hilabetea). Ondorioz erabaki zen, salbuespen gisa, MA2 gisa pagatuak ziren lehen mailako irakasleak lanetik urrun bizi zirelarik (+30 km), etxetik lanerako bide gastu batzuk pagatzea. Ikasturte honetan lortu da lehen mailako irakasle oro MA1 gisa ordainduak izan daitezen, beraz salbuespen egoera bururatu da. 2022/23 ikasturtean, urte hastapenetik postuan diren irakasleek ez dute bide gasturik izanen. Urtean zehar sartuko direnek aldiz bai, etxetik 30 km baino gehiagora baldin badute ikastola, lehen maila eta bigarren maila berdin.

Jusqu'à présent, les enseignant.e.s suppléant.e.s du primaire et du secondaire n'étaient pas payés de la même manière. Ceux du primaire étaient rémunérés en MA2 (1 504,21 € brut par mois) et le Secondaire en MA1 (1 635,42 € brut par mois). Par conséquent, il avait été décidé qu'à titre exceptionnel, les enseignants du primaire rémunérés en MA2 et habitant loin de leur lieu de travail (+30 km) auraient une indemnisation pour leur frais de déplacement. Cette année des réajustements ont été faits et maintenant tous les enseignants du primaire sont payés en tant que MA1. Il n'y a donc plus de situation d'exception. Au cours de l'année scolaire 2022/23, les enseignants en poste depuis le début de l'année (septembre) n'auront plus d'indemnisation de frais de déplacement. En revanche, les enseignant.e.s du primaire et secondaire qui seront engagé.e.s en cours d'année et qui feront plus de 30 km de chez eux à l'ikastola seront indemnisé.e.s.

Hezkuntza zuzendari bat eta hezkuntza zuzendari orde bat plantan jartzea erabaki da ? Helburua ez zen 2 hezkuntza zuzendari izatea ? Ardurak partekatze gisan ? Ez bagira tronpatzen aurte 3 hezkuntza zuzendari orde izan dira, 3. langilea zer bilakatzen da ? Bere berri izan nahiko genuke.

Il a été décidé de nommer un directeur éducatif et une directrice éducative adjointe ? L'objectif n'était-il pas d'avoir 2 directeur.trice.s éducatif.ve.s ? afin de se partager les responsabilités ? Si nous ne nous trompons pas, cette année il y a eu 3 directeurs éducatifs adjoints, que devient la 3ème personne ? Nous aimerions avoir de ses nouvelles.

Hezkuntza zuzendari posturako deialdia bete gabe gelditurik 2020/21 ikasturtean bi hezkuntza zuzendari orde izan ditugu 0,75 lan denborarekin (Egoitz eta Idoia), orotara 1,50. Horiei Ana gehitu zaie Hezkuntza zuzendaritzan aholkulari gisa (0,25). 2022/23 ikasturtean Egoitz hezkuntza zuzendari gisa ariko da denbora osoz, eta Idoiak hezkuntza zuzendariorde gisa segituko du 0,75 denboraz. Anak aholkulari gisa segi dezan ondoko egunetan argitzea espero dugu.

L'offre d'emploi du poste de directeur.trice. éducatif.ve n'ayant pas donné lieu à un recrutement au cours de l'année scolaire 2020/21, nous avons eu deux directeur.trice.s éducatif.ve adjoint.e.s travaillant chacun à temps partiel (0.75 poste) (Egoitz et Idoia), soit 1.5 poste au total. À ceux-ci s'est ajoutée Ana en tant que conseillère (0,25). En 2022/23, Egoitz sera directeur éducatif à temps plein et Idoia continuera en tant que directrice éducative adjointe à temps partiel (0,75). Concernant la situation d'Ana, nous espérons en savoir plus dans les prochains jours.

ERROBI :

Ana Monjek heldu den urtean Seaskan segituko du?
Est-ce que Ana Monje continuera à Seaska ?

Ikus gaineko erantzuna. Voir réponse ci-dessus.

LEKORNE :

1.9 Euskaraz bizi 1,5 postu.

Ez dugu argi lan postu hauek norengain diren. Zehaztapena emendatua izan dadin eskatzen dugu.

« ordezkoa » idatzia da, Euskaraz Biziko Xan Aire langilea badoa ? Hala bada 14 urtez Euskaraz Bizin lanean ibili ondoren eskerrak merezi dituela pentsatzen dugu. Ordezkoa atxeman da ? Deialdia egina izan da ?

1,5 poste Euskaraz Bizi. Nous ne savons pas exactement qui a la charge de ces postes. Nous demandons plus d'explications.

Il est écrit « suppléant », Xan Aire quitte son poste ? Si c'est le cas, après avoir travaillé 14 ans au sein d'Euskaraz Bizi nous pensons qu'il doit être remercié. Une nouvelle personne a-t-elle été recrutée ? L'offre d'emploi a-t-elle été diffusée ?

Euskaraz Bizin 1,5 postu ditugu, Xan 0,75 EHLrekin kontratupean eta Maddi 0,75 Seaskarekin kontratupean, baina 0,25 EHlk ordaintzen digu. Xanek jakinarazi du joateko xedea duela. Joaten bada, ondotik egingen dugu deialdia.

Nous avons 1,5 postes pour Euskaraz Bizi, Xan est sous contrat avec EHI à temps partiel (0,75) et Maddi à temps partiel (0,75) sous contrat avec Seaska, mais EHI nous paie 0,25 poste. Xan a annoncé qu'il avait l'intention de partir. S'il part, nous ferons l'offre d'emploi.

G) Tanta :

Ez dugu argi Tantaren antolaketa eta 5 euro horien kudeaketa nola den. Testuetan idatzia da ikastolek zuzenean IBri dirua emanen dutela Seaskatik pasa gabe. 1500 euroak zer ordaintzeko dira zehazki ? 1500 txartel ? « Notaritza gastuak » aipatzen dira zer dira gastu hauek ?

Ikastolek IBri zenbat diru eman behar dute ? Txartelak 5 euro balio du, azken testuetan aipatu zen zati bat ikastolan gelditzen ahal zela, nola da hau xeheki ? Ikastolek txartelaren gastuak Seaskari eman behar dizkio ? Ez bada hala, honek erran nahiko luke indirektoki Seaskak 1500 euro IBri emaiten dizkiola ?

Emendakina : 5 euro horiek nola partekatzen diren zehaztea eskatzen dugu.

L'organisation de Tanta et sa gestion n'est pas très explicite. Il est écrit dans les textes que les ikastola donneront l'argent directement à IB sans passer par Seaska. Quels sont exactement les 1500 euros à charge de Seaska ? 1500 bons ? A quoi correspondent ces "frais de notaire" ?

Combien d'argent doivent donner les ikastola à IB ? Le billet coûte 5 euros, et dans les derniers textes, une partie de l'argent pouvait revenir à l'ikastola, comment est-ce détaillé ? L'ikastola doit-elle payer les frais à Seaska ? Si non, cela signifie-t-il que Seaska reverse indirectement 1 500 euros à IB ?

Amendement : nous demandons de préciser la répartition de ces 5 €.

Ikastolek Tantari buruz ukan duten mezuan argiki adierazia da, ikastola bakoitzak saltzen duen txartel bakoitz 5€ emanen dizkiola IBri. Eraitza osoa izan dadin, Seaskak bere gain hartzen du txartelen kudeaketa eta kostua (manatzen den txartel kopuruaren arabera, 0.10€ txartel bakoitz). Kostuan sartzen dira sormen eta inprimaketa gastuak, notaritza gastuak, 60 000 euroko sariaren partea eta abar.).

Le message que l'ikastola a reçu à propos de Tanta indique clairement que l'ikastola doit reverser 5 € par billet vendu à Integrazio Batzordea. Pour qu'IB perçoit la totalité des recettes, Seaska assume la gestion et le coût des billets (selon le nombre de billets commandés, 0,10 € par billet). Le coût comprend les frais de création et d'impression, les frais de notaire, une partie du prix de 60 000 euros, etc.).

Hona Ikastola.eus webgunean atxeman duguna :

TANTA egitasmoa ikastolen jaien ekimenez sortu da. Azaldu dutenez, jaiok finantzatzeko, egunean bertan eta urtean zehar diru sarrerak lortzeko bideak irekitzen dira (arropa salmenta, txosnak, tonbola, sarrerako kutxak, kultur eta kirol ikuskizunak...). Baliabide horietako bat zozketa izan da. Jai bakoitzak bere zozketa antolatzen du : dirua, auto bat, bidaia bat... gauza desberdinak zotz egiten dituzte. Helburua bera izanik —jaien autofinantzaketa—, bost zozketa horiek egin beharrean, ikastolen jaiak elkartasun txartelak egitea erabaki dute, eta TANTA sortu dute.

5 jaiak aipatzen direnean Herri Urrats bezalakoak direla ulertzen dugu. Alta Herri Urratseko bulegoan Tanta zozketan ez parte hartzea erabaki zen. Zergatik IB ? Integrazio Batzordea ez da « jai » bat ?

Voici ce que nous avons trouvé sur la page web ikastola.eus :

Le projet TANTA a été créé à l'initiative des festivités de l'ikastola. Il est expliqué que pour financer les fêtes, il existe des moyens de récolter de l'argent le jour même et tout au long de l'année (ventes de vêtements, kiosques, tombola, billetteries, spectacles culturels et sportifs...). L'une de ces ressources a été une tombola. Chaque fête organise sa propre tombola ; de l'argent, une voiture, un voyage. Avec le même objectif - l'autofinancement des fêtes - au lieu d'organiser 5 tirages, la coordination des fêtes a décidé de faire une tombola solidaire et a créé TANTA.

Lorsque l'on parle de 5 fêtes, nous comprenons qu'il s'agit des fêtes comme Herri Urrats. Pourtant au bureau de Herri Urrats Il a été décidé de ne pas participer au tirage Tanta. Pourquoi I.B ? La Commission Intégration n'est pas une « fête » ?

Ikastolen Elkartearekin Tanta Euskal Herri osoko ekimen gisa antolatu da. Hegoaldeko 4 jaiek berengain hartu dute Tantaren kudeaketa eta salmenta. Iparraldean Herri Urratsek erabaki zuen ez partehartzea. Euskal Herri mailako ekimena izan zedin, eta gure beharrak estaltzeko diru iturri inportante izaten ahal dela ikusirik, Seaskako Batzorde eragileak erabaki zuen Tantaren kudeaketa Seaskatik egitea eta irabaziak IBrendako izatea. 2020an 6 000 € lortu ziren IBrendako, eta 2021ean ere berdin. Aurten IBko lehendakariak eta Seaskakoak elgarrekin gutun bat bidali dute ikastoletara, inklusioaren behar handiak agertuz eta galdeginez ikastola bakoitzak gutienez Tanta bat har dezan ikasleka, (4000 ikasle x 5€) 20 000 € eskuratzeko xedearekin. Maleruski ez da helburu hori lortuko (1 600 txartel manatu dira ikastoletatik, beraz 8 000€), baina espero dugu ohiduretan sartuko dela ondoko urtean ikastolek ahalegin berri hori eginen dutela ikasle bakoitz txartel bat edo gehiago hartuz, IBrendako diru iturri inportante izan baitaiteke.

Tanta est une initiative d'Ikastolen Elkartea qui est organisée sur tout le Pays Basque. Les 4 fêtes d'Hegoalde ont pris en charge sa gestion et sa vente. En iparralde Herri Urrats avait décidé de ne pas y participer. Afin qu'elle reste une initiative sur tout le Pays Basque et en voyant que cette initiative pouvait couvrir une partie de nos besoins, le Conseil Exécutif de Seaska avait décidé que la gestion de Tanta passerait par Seaska et que les bénéfices seraient pour Integrazio Batzordea. En 2020, 6 000 € ont été récoltés pour IB, et de même en 2021. Cette année, le président de l'IB et de Seaska ont envoyé une lettre aux ikastola, indiquant les besoins importants en d'inclusion et demandant à chaque ikastola de prendre au moins un billet par élève (4000 élèves x 5 €) dans le but d'obtenir 20 000 €. Malheureusement, cet objectif ne sera pas atteint (1 600 billets ont été vendus, soit 8 000 €), mais nous espérons qu'il deviendra coutumier pour les ikastola de faire ce nouvel effort l'année prochaine en prenant un ou plusieurs billets par élève, car cela peut être une importante source de revenus pour l'IB.

ERROBI :

Tanta zozketan zenbat ikastolak parte hartzen dute ? Non ikusten da irabazlea?

Combien d'ikastola ont participé à cette initiative ? où voit-on le billet gagnant ?

Aurten 10 ikastolek partehartu dute momentuz. Oraindik eskaerak egin daitezke, baina kasu, zozketa eguna ekainaren 24an da. Ikastola.eus webgunean ematen da zenbaki sariduna. Seaska.eusen emanen dugu ere.

Pour le moment 10 ikastola ont participé. Il est encore temps de commander mais il faut tenir compte du jour du tirage qui est fixé au 24 juin. Le numéro du billet gagnant paraît sur le site web de ikastola.eus. Cette année il figurera sur le site seaska.eus également.

LEHENDAKARIAREN INDEMNIZAZIOA / Indemnisation de la présidence

LEKORNE :

Iaz bezala eskaera berdina egiten dugu berriz ere : bozkatu aintzin garrantzitsua atxemaiten dugu xehetasun gehiago izatea. Nola justifikatzen dira gastuak, nola kalkulatu dira (bide

gastu, lan huts egite egunak...)? Esplikapen xeheago bat urtero zehaztea garrantzitsua dela iruditzen zaigu, argi ez duten guraso zaharrentzat eta sartuko diren guraso berrientzat.

Concernant la rémunération du Président : Nous réitérons la même demande que l'année dernière. Nous pensons qu'il est important d'avoir plus de détails avant le vote. Comment les dépenses sont-elles justifiées, comment sont-elles calculées (frais de déplacement, jours d'arrêt de travail...) ? Nous estimons qu'il est important de fournir une explication plus détaillée chaque année pour les parents qui sont déjà à l'ikastola depuis quelques années ou pour les nouveaux parents.

Lehendakaria, Seaskaren ordezkari gorena da, Seaskaren arduradun legala da. Indemnitateak Seaskaren izenean egiten diren errepresentazioenagandik pasatako denbora indemnitatzten du. Instituzioekin bilkurak (Herriko Etxeak, Elkargoa, departamendua, eskualdea, Estatua ordezkari ezberdinak, EEP, Garapen Kontseilua), kide giren egiturekin errepresentazio eta bikurak (ISLRF, Eskolim, PQVNL, Euskal Konfederazioa,EHI...), hedabideekin harremanak (prentsurreko, elkarrizketa edo beste), Seaskaren enplegatzaile gisa egin lanak (langile ordezkari, eta abar). Egun erdika 50 €ko indemnitete bat jasotzen du. Kilometroak aparte ordainduak dira. Beste lanak ez dira indemnitatuak (Batzorde Eragilearen bilkurak eta lanak, erreferente gisa bilkurak ikastoletan). Hilabete guziz eraman misioen taula betetzen du, zuzendariak balidatzen du. Indemnitete mugatu bat da, ez soldata bat eta ez ditu konpentsazen funtzioak eskatzen dituen dedikazio, pasatako oren eta buruhausteak. Taulak kontsultagarri dira Seaskan.

Le président, le plus haut représentant de Seaska, est le représentant légal de Seaska. L'indemnité indemnise le temps consacré aux représentations faites au nom de Seaska. Rencontres avec les institutions (les mairies, la communauté d'agglomération, le conseil départemental, La région, divers représentants de l'Etat, l'office Public de la Langue Basque, Conseil de développement), représentations et rencontres avec les structures dont nous sommes membres (ISLRF, Eskolim, PQVNL (pour que vivent nos langues), Euskal Konfederazioa, Euskal Herriko Ikastolak...), relations avec la presse (conférence de presse, interview ou autre), Travailler en tant qu'employeur Seaska (avec les représentant des salariés, etc.). Il perçoit une indemnité de 50 € pour demi-journée. Les frais kilométriques sont payés séparément. Les autres réunions ne sont pas rémunérées (réunions et travaux du Conseil Exécutif, réunions en tant que référent dans les ikastolas). Chaque mois il remplit un tableau avec les représentations que le directeur valide. Il s'agit d'une indemnité limitée, non d'un salaire, et qui n'inclut pas le dévouement, les heures passées et les « prises de tête » nécessaires aux fonctions.

Les tableaux sont consultables à Seaska.